

BELDUR GABE HAZIZ, ETORKIZUNA ALDATU

Kaixo:

Aurten ere **STEE-EILAS** sindikatuak azaroaren 25ean “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” dela eta ikasleekin lantzeko proposamen berriarekin zuengana jotzen dugu.

Oraingoan indarkeria ematen den espazioei buruz hausnartu nahi dugu, batez ere aisialdiko espazioei buruz non askotan beldurra sortzen duten hamaika egoera sortzen diren eta emakumeak izaten dira bereziki egoera horiek pairatzen dituztenak.

Unitate didaktiko honekin, “*Beldur gabe haziz, etorkizuna aldatu*”, bi helburu lortu nahi ditugu. Bata, ikasleek indarkeria mota desberdinei buruz hausnartu dezaten, indarkeria orokorrean eta emakumeen kontrakoa bereziki; baita sortzen diren espazioei buruz ere. Eta bestea, askotan kontsentituta eta egunerokoak diren bestelako indarkeriaz jabetzen laguntzea. Eta berriz ere azpimarratu nahi dugu, indarkeria mota hau agerian uzteko eta haren aurkako borrokan baliabideak garatzeko hezkidetzak duen garrantzia.



Hezkidetzaren gauzatzea berrantolatzeko beharra dugu, edozein indarkeria mota ekiditeko. Pertsona guztiak haien eta besteen buruak errespetatzeko diferentziak onartuz eta berdintasun erreala jorratuz.

Aurten Unitate didaktikoa formatu digitalean soilik bidaltzen dizuegu, inprimatu eta ikastetxean egongo den Hezkidetzaren karpeta sartzeko animatzen zaituztegu. Karpeta ikastetxean egongo ez balitz egoitzekin jar zaitez kontaktuan beste bat eskuratzeko.

Gure web orrian ere aurkituko duzu.

Honekin batera kartela bidaltzen dizuegu, Unitate Didaktikoa lantzeko abiapuntua izateaz aparte, ikastetxean toki ikusgarri baten jartzeko eskatzen dizuegu.

Beste aldetik, ikastetxean hitzaldi bat antolatu nahiko bazenute ere jar zaitez gurekin kontaktuan.

Bide batez, aprobe txatu nahi dugu egun horretarako antolaturik dauden hainbat ekitaldien berri emateko eta horietan parte hartzen ere animatu nahi zaitugu.

Inolako indarkeriarik gabeko bizimodurako hezi behar dugu!

Koordinadora feministek antolatutako manifestazioak:

Bilbon:	19:30ean Arriagan
Donostian:	19:00etan Boulevarden
Gasteizen:	19:30etan Virgen Blancan
Iruinean:	20:00etan Gaztelu Plazan